

BIZIKIDETZA ETA GATAZKAK IKASTETXEETAN

Arartekoaren arratsaldeko hitzaldiaren testua

Bilbao, 2007ko maiatzaren 24a

Arratsalde on eta eskerrik asko “Eskolako bizikidetasunari eta gatazkei” buruz gogoeta egiteko eta parte hartzeko foro honetara etorri zaretelako.

Mahaian lagun dut María José Díaz-Aguado irakaslea. Geroago aurkeztuko dizuet, berak hitzaldi dokumentatu eta segurki interesgarria eman baino lehentxeago. Aretoaren sarreran dagoeneko orrialde bat emango zizueten, hitzaldian landuko dituen edukien laburpen edo aurkibide gisa.

Egitarauari jarraiki, hitzaldi hori baino lehen, niri dagokit, Arartekoa naizenez, foroa aurkeztea eta oraintsu gai honetaz argitaratu dugun txostenean (*Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan* izenburukoan) jorratu ditugun funtsezko gaiak eta egin ditugun gomendioak laburki azaltzea. Txosten hori joan den urtarrilean bidali zitzairen gure erkidegoko ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzu guztiei, eta, inork kontsultatu nahi badu, eskuragarri dago, oso-osorik, Arartekoaren web orrialdean.

Saio ireki honetarako pentsatu dugun dinamika hauxe da: bi hitzaldien ondoren, solasaldi bat egitea, hemen zaudeten guztiok, nahi izanez gero, galderak, proposamenak, iruzkinak... egin ditzazuen.

Horiek guztiak bildu eta aztertuko ditugu, goiz osoan hementxe bizikidetasunaz gogoeta egin dugun berrogei pertsonen ekarpenak oro bildu ditugun bezalaxe. Nire hitzaldiaren bukaeran zertxobait esango dut gaur goizeko mintegian jorratutako gaiez. Orain, berriz, labur aurkeztuko dizuet gure txostena.

Bi urteko lanaren ondoren, txosten hori iazko abenduaren 19an ezagutarazi genuen –Eusko Legebiltzarreko lehendakariari eman genion egun berean–, eta foro honen izenburu bera du: “Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan”.

Gainetik irakurri dutenek ikusiko zutenez, txostena izugarri zabala da eta, horretarako, milioika datu ustiatu dira. Gaiak hainbesteko garrantzia duenez eta hain eztabaidagarria izaten ari denez (horren inguruan, oso emaitza desberdinak ekarri dituzten ikerketak ere egiten ari dira), garrantzitsua iruditu zitzaigun txosten osatua eta zehatza egitea. Baina, aldi berean, eskolako hezkuntzan diharduten agente sozial eta sektore guztientzat kontsultatu, irakurri, aprobeztatu eta erabiltzeko erraza izatea nahi genuen.

Izan ere, txostena modu desberdinetara irakur daiteke, norberaren ikuspegia edo interesak kontuan hartuta: bere alabaz kezkatuta dagoen aitaren ikuspegia; Bigarren

Hezkuntzako irakaslearena; laguntza-zerbitzuko langilearena; hezkuntza-sistemako arduradunarena...

Era askotako irakurketa posible horien artean, hitzaldi honetarako erabilgarriena aukeratu dugu: laburpena egiten saiatuko naiz, kezkarik handiena eragiten duten edo hobetzeko premia gehien duten kontuetan, arazoetan eta horiek gainditzeko proposamenetan oinarrituta.

Horretarako, hitzaldi, funtsean, hiru bloke edo atal handiren inguruan egituratuko dut:

- Lehen blokea sarrera izango da eta testuingurua emango da. Bertan, honakoak azalduko ditut: zergatik heldu diogun gai honi, nola egin dugun, zeintzuk izan diren informazio iturri nagusiak, nola aztertu diren datuak...
- Bigarren blokea laburpena izango da. Bertan, ondorio edo arazo azpimarragarrienak aipatuko ditut.
- Hirugarrenak gomendioak bilduko ditu.

Bukatzeko, zenbait hausnarketa egingo ditut eta gaur goizeko mintegi edo tailerraz arituko naiz.

- Lehenik eta behin, argi eta garbi azaldu nahi dut, garrantzitsua iruditzen baitzait, **zein arrazoik bultzatu gaituzten txosten hau egitera**; hau da, Ararteko erakundeak zergatik egin duen ikastetxeetan eta, zehazki, gure Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan ikasleen arteko bizikidetzari, gatazkei eta aurkakotasunari buruzko txostena. Eta, areago, zergatik egin duen foro hau.

Dakizuenez, orain arte ez dugu azterlan edo txosten askorik egin hezkuntza-sistemari buruz bakarrik: hezkuntza-premia bereziei emandako erantzunari buruzko bat; sasoikako langileei buruzko beste bat, eskolatze baldintzen gaineko kapitulu luze batekin; etorkinak Araban eskolatzeari buruzko beste bat... Egia esan, arreta handiagoa eskaini izan diegu beste sistema batzuei (adibidez, gizarte zerbitzuei), eta baita adin txikikoen eskubideei zuzenean eragiten dieten beste egoera batzuei ere: adin txikikoak babesteko sistema; gazte-justiziako sistema; bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera; osasun mentaleko arazoak dituzten gazte eta nerabeak...

Hala ere, orain dela bi urte baino gehiago erabaki genuen ikastetxeetako bizikidetzaren gaineko txosten bat prestatzea. Eta, aurretik, herritarrek parte hartzeko foroak antolatuta genituen hiru lurraldeetan, gaurkoaren antzekoak, hezkuntza-komunitate osoari irekiak.

Zer dela-eta gai honi buruzko txostena? Oinarrizko eskubideei eragiten dien kontua delako: hots, adin txikikoen eskubideei, irakasleen eskubideei eta familien eskubideei; hezkuntzarako eskubideari, desberdintasun, errespetu eta duintasunerako eskubideei... Gizartean gai horrek kezka edo eztabaida sortu duelako. Eztabaida hori ez delako beti

errealitatearen azterketa serioetan oinarritzen. Kontu horiengatik jasotzen ditugun kezak eta kontsultak gero eta ugariagoak eta kezkarriagoak direlako...

Adibidez, eskolako jazarpenaz edo beste mota bateko tratu txarrez hitz egiten dugunean, ez da erraz jakiten lehendik ere bazeuden fenomeno ezagunak diren ala gertakari berriak diren, ezta ere geroz eta ugariagoak diren ala ez, baina herritarrei alarma eta kezka berriak sortzen ari zaizkie, eta administrazioei, berriz, esku-hartze eskaera berriak.

Honako hau ez da defendatzaile bat gaiaz arduratzen den lehenengo aldia. 2001ean, adibidez, Espainiako Herriaren Defendatzaileak azterlan bat argitaratu zuen ikasleen arteko indarkeriari buruz eta, duela egun gutxi gai berari buruzko bigarren txosten baten emaitza jakinarazi du. Gainera, badira “*bullying*”ari buruzko hainbat ikerketa; ikerketa horietan, arazoak zenbateko eragina duen zehazten ahalegindu dira, eta oso emaitza ezberdinak lortu dira. Urriagoak dira, ordea, eskolako bizikidetzan oro har hartuta egindako azterlanak.

Hezkuntza Sailak ere azterlan ezberdinak egin edo sustatu ditu. Gure txostenaren 1. kapituluari ikerketa horien guztien ikuspegi panoramiko eskaintzen da. Alabaina, ez dirudi bildutako datuak edo administrazioek aplikaturiko erantzunak nahikoa direnik, edo behintzat ez dute hori uste zuzenean kaltetutako sektore batzuetako pertsonen. Gainera, taldeen kezken ondorioz, batzuetan hartzen den jarrerak gaia larritu dezake, gatazkatsuagoa bihurtu alegia, konponbideak eman baino.

Onartu beharra dago Hondarribiko Jokinen kasuak edo ikasleen arteko jazarpen kasu larri batzuek gizartean izandako oihartzunak ere izan zutela eragina erabakian. Egia esan, azken bi ikasturteetan inoiz baino kontsulta eta salaketa gehiago jaso ditugu ikasleen arteko jazarpen, tratu txar edo nagusikeriagatik. Ia beti estu zeuden gurasoek eginak. Batzuetan irakasleek eurek jarritakoak. Eta askotan beren ustez ikastetxeek edo zegokion hezkuntza-administrazioak erakutsitako inhibizio edo jarrera defentsiboa kritikatu. Ez dugu uste kezka ugariak jazarpena areagotu dela adierazten duenik. Kasu honetan, uste dugu gizarte eztabaidak berak –beti ondo bideratzen ez denak– horrelako egoerekiko bereziki sentsibilizaturik edo adi egotea eragin duela. Izan ere, forma ezberdinez bada ere, beti gertatu izan dira halako egoerak (horrek ez du esan nahi justifikazioa duenik edo aitzakia denik).

Iristen zaizkigun arazoak ziurrenik icebergaren punta txiki bat besterik ez dira eta, oro har, egoera larriak islatzen dituzte, hain zuzen, oinarritzko eskubideei eragiten dietenak: batez ere, inork jazarri, iraindu edo baztertzeko beldurrik gabe, ikasle guztiak ikastetxera joateko duten eskubidea; ezberdina izateko eta modu horretan taldean onartua izateko eskubidea; entzuna eta babestua izateko eskubidea, babesteko betebeharra dutenen aldetik... Baina, modu berean, beste eskubide batzuk ere agertzen dira tartean, eta ez bakarrik adin txikiko pertsonenak (kasu honetan ikasleak), baita irakasleenak edo gurasoenak.

Gizarte kezka edota alarmismoa bizi den egoera horretan, garrantzitsua iruditzen zitzaigun gure ikastetxeetako errealitateaz gauza gehiago eta hobeto jakitea, eta ezagutza horretan oinarrituta, eskolako giroa eta bizikidetasuna hobetzen lagun dezaketen hainbat gomendio egitea. Horixe da txostenaren xede nagusia.

- Bigarrenik, **zer eta nola aztertu dugun** adieraztea komeni da.

Ikastetxeetan indarkeria erabiltzeari buruzko berri, eztabaida eta kezka asko “*bullying*” izenekoarekin uztartzen dira. Ohartarazi behar da gure txostena ez dela bullying-aren gainekoa. Edo, zehazkiago esanda, prestatutako azterlana ez dela soilik gai horren gainekoa. **Eskolako giroa** osorik aztertzea du helburu: ikasleen arteko harremanak, bai; baina baita irakasle eta ikasleen arteko harremanak ere, ikasle eta familien artekoak, etab. Hau da, hezkuntza komunitatearen esparruan kide ezberdinen artean izaten diren harreman guztiak, gelako martxa etetea edo diziplinarik eza bezalako jokabideak ere barne hartuta, horrelako portaerek ikastetxeetako jarduera egokia hondatzen baitute.

Bizikidetzaz gatazkei dagokienez –txostenean aztertzen diren gaietako bat da, bakarria izan ez arren–, funtsean, sei gatazka mota ikertu ditugu: disrupzioa; ikasleen erasoak irakasleei; irakasleen erasoak ikasleei; ikasleen arteko tratu txarrak; bandalismoa; eta absentismoa. Horietako bakoitzean, dituzten adierazpen eta maila desberdinak ikertu ditugu. Ikasleen arteko tratu txarretan, adibidez, jokabide mota oro aztertu dugu (iseka egitea, jotzea, baztertzea, mehatxu egitea, gauzak lapurtzea edo apurtzea, sexu-erasoa egitea...), baita horien maiztasuna ere.

Baina ez dira soilik gatazkak aztertu; giro orokorra, bizikidetzaz arauak, ikastetxe batzuetako bizikidetzaz hobetzeko jardunak, hezkuntza-sektoreetako bakoitzean nagusi diren balioak, etab. ere ikertu dira.

Bestalde, batik bat eskolan oinarritu bagara ere, aintzat hartu nahi izan ditugu, orobat, nerabeek ikastetxetik kanpo duten bizitzako zenbait elementu, beren eskolako bizitzarekin lotura estua dutelako, esate baterako, taldeko harremanak, edota gizarte eta familia inguruko elementu batzuk. Bereziki balioekin eta helduek gaiaren inguruan duten kezkekin uztarturiko puntuak aztertu dira.

Landutako ikuspegia, azterlana jazarpena ez mugatzeko erabakia bera, beste erabaki batzuekin batera hartu dira, eta guztiek eragina izan dute azken emaitzan eta, areago, emaitza horren erabilgarritasun handiago ala txikiagoan. Adibidez, metodologia kuantitatiboa (galdera-sorta ezberdinetatik abiatuz) eta kualitatiboa (elkarrizketa luze eta zehatzen bidez eta ikastetxe batzuetan eginiko eztabaida-taldeei esker) erabili dira, jarduna Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetara mugatu dugu, horien kopurua gutxitu egin dugu alde kualitatiboan, ikastetxe bakoitzari dagokion informazioa “atzerantz itzultzeko” konpromisoa hartu genuen, bakoitzak bere barne-azterketa egiteko aukera izan zezan (konpromiso hori joan den ikasturteko azken hiruhilekoan bete zen; horretarako, lagina

osatu zuten 80 ikastetxeetako bakoitzari banakako txostena bidali zitzaien); ikastetxe bakoitzak askatasunez erabaki du azterlanean parte hartu ala ez, etab.

Txostenaren elementu nagusia joan den ikasturtean (2005-2006) gure erkidegoko Bigarren Hezkuntzako 80 ikastetxetan garaturiko ikerketa da. Horretarako, galdera-sortak, elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egin ziren. 80 ikastetxe horiek publikoak nahiz pribatuak dira, hiru lurraldeetakoak, eta gure erkidegoko ikastetxe zerrendatik ausaz hartu dira.

Azterlan honen alde kuantitatiboa eratzeko (3. kap.), galdera-sortei emaniko erantzunak aztertu dira (II. eranskina). Galdera-sortak DBHko 2. mailako 1.707 ikaslek, DBHko 4. mailako 1.616 ikaslek, 2.782 familiak, 1.257 irakaslek eta 80 zuzendarik erantzun dituzte.

Azterlanaren alde kualitatiboa (ikus 4. kap.) egiteko, 80 ikastetxe horietatik hamar aukeratu dira, hainbat faktore aintzat hartuta. Hamar ikastetxe horietan elkarrizketak eta eztabaida-taldeak egin ziren sektore bakoitzarekin (ziklo bakoitzeko ikasleak, gurasoak, irakasleak).

Gainera, batez ere, gure gomendioak egiteko orduan, beste informazio iturri osagarri batzuk ere kontuan hartu dira, adibidez, azken bi urteotan jaso diren kontsulta eta kexak jazarpen edo tratu txarreko balizko egoerak salatuz, eta egoera horiek argitzeko garatu diren ikerketak. Horren ondorioz, zenbait muga topatu ahal izan dira prozeduretan.

- Hirugarrenik, komeni da esatea txostenari ikuspegi ezberdinetatik hel dakiogeele edo irakurketa desberdinak egin daitezkeela. Horrela, esate baterako,
 - Norbaiti datu kuantitatiboak bakarrik interesatzen bazaizkio, nahikoa da 3. kapitulua gaineratik irakurtzea, bertan jaso eta azaltzen baitira datu taula eta 37 irudi edo grafiko gehienak; horietako batzuk aurrerago adibide gisa erabiliko ditut.
 - Aldiz, ikuspegi sintetikoa bilatzen baldin badu, sarreran eta 5. kapituluan (ondorioei buruzkoan) aurkituko du, baita 3. kapituluko atalen bukaeran ere, “Laburbilduz” izeneko laukietan.
 - Hala ere, azterlan hau beste batzuekin alderatu nahi izanez gero, edo hori testuinguruan kokatu, 1. kapitulura eta bibliografiara jo beharko luke.

Are zehatzagoak diren interesak ere egon daitezke, adibidez, ikastetxe eta sektore baten ikuspegia edo genero ikuspegia... Txostenak honelako irakurketak ere ahalbidetzen ditu, datuak ustiatzerakoan horrelako aldagaiak erabili baititugu: zein alde dauden jokabide eta erantzunetan mutil eta neska nerabeen artean, gizonezko eta emakumezko irakasleen artean, ikastetxe publiko eta pribatuetako familien artean, etab.

Irakurketa horiek guztiak egin daitezke, baina, hasieran adierazi dudana bezala, foro honetarako irakurketa erabilgarriena, ziurrenik, ikuspegi sintetikoa ematen duena da, arreta arazo orokorretan eta hobetzeko proposamenetan jartzen duena. Hortaz, interes handiko alderdi asko alde batera utzita, eta ahalik eta laburren, arazo eta proposamen horiek azalduko ditugu.

- **Zer da deigarriena eta zeintzuk dira aztertutako errealitatearen alderdirik kezkarrienak.**

Ikastetxeetako indarkeriaren gainean gizarteak agertzen duen alarma, hedabideetan titular handietan zenbaitetan agertzen diren albisteak, edota ikerketa zehatz batzuk eskaintzen dituzten emaitzak kontuan hartzen baditugu, ziurrenik deigarriena eta eginiko azterlanean azpimarratzeko moduko aldea izango da **gure hezkuntza-komunitateko osagarri guztiak (ikasleak, irakasleak eta familiak...) nahiko pozik daudela beren ikastetxeetan sumatzen duten giroarekin.**

Erantzunak kritikoagoak dira hezkuntza-sistemaren giro orokorrari buruz galdetzen zaienean edo giroaren balizko hondamenari buruz hitz eginaraztean. Bakoitzaren ikastetxeari buruz galdetzean, ordea –hori da hobekien ezagutzen dutena–, bildutako balorazioak oso aldekoak dira. Adibide gisa, familien % 82k ez luke semea edo alaba ikastetxez aldatuko, edo familien % 93,4 oso pozik daude semea edo alaba dagoen ikastetxean egotearekin.

Txostenak beste hainbat alde on antzemateko aukera ematen du.

Ararteko erakundeak eskubideak bermatzeko duen betebeharretik aztertuz gero, ordea, alde txarrak azpimarratu behar ditugu eta, bereziki, ondorio larriak izan ditzaketenak edo pertsonen oinarrizko eskubideetan eragin dezaketenak. Ikuspegi hori kontuan hartuta, egia esan, nahikoa litzateke eskola komunitateko kide bakar bat baztertua, mehatxatua, erasota edo lotsarazia izatea, gure kezkak edo esku-hartzeak zentzua izateko. Eta gure azterlanean bildutako datuek, gainerakoek bezala, horrelako jarduerak –gehienetan nagusikeriaren adierazgarri– ohikoak direla adierazten dute, zoritxarrez.

Azterlanak nahiz garatutako jarduerak agertzen dizkiguten **elementu kezkarrien** artean, honakoak nabarmendu ditzakegu:

1) Irakasleen eta familien artean antzeman daitekeen banaketa.

Txostenean, bereziki galdera-sortei emaniko erantzunean ikusten denez, alde nabarmenak daude, elkarrengandik oso jarrera aldenduak familien eta irakasleen artean, hainbat konturen gainean iritzia ematerakoan eta balorazioak egiterakoan. Horrela, esate baterako, familiek oso ikuspegi idilikoa dute irakasle eta ikasleen arteko harremanez;

haien ustez, beren seme-alabek ez dute ia arazorik sortzen; aldiz, askoz ere kritikoagoak dira irakasleen jardunbidearekin, etab.

Txostenean alde benetan deigarri horiei buruzko grafikoak eta datuak aurkituko dituzue.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena ez da, agian, alde horiek egotea. Kezkagarriena, ziurrenik, sektore batek besteari errua botatzea da, edo arazoen erantzukizun nagusia egozte, edo batek besteak gatazkak konpontzeko duen modua zalantzan jartzea... Horrela, esaterako, irakasle gehienek (% 54k) uste dute familiek seme-alabei gehiegi uzten dietelako gertatzen direla ikastetxeetako diziplina-arazoak edo indarkeria, baita seme-alabei inolako jokabide mugarik ezartzen ez dietelako ere. Familia askok, aldiz, uste du gatazkak ez direla zuzen konpontzen ikastetxeetan...

Ararteko erakundeetan jasotzen ditugun kexek ere, alde horiek nabarmentzen dituzte: guregana jotzen duten familiek uste dute irakasleek edo ikastetxeetako zuzendariek arduragabekeriak jardun dutela edo beren irudia mantentzen saiatu direla edo ez dutela nahikoa lan egin beren seme edo alabaren arazoa konpontzeko. Aitzitik, ikastetxeak behar bezala jardun duela uste du eta, zenbaitetan, familiaren esku-hartzea kaltegarria ere izan dela, gauzak zaildu besterik egin ez dituelako.

Kontuan hartzen badugu azterlan guztiek eta praktikak familia eta irakasleen arteko lankidetzaz azpimarratzen dutela ikastetxeetako bizikidetzaz eta giroa hobetzeko ezinbesteko faktore gisa, alde horiek izugarri kezkagarriak dira eta lehentasunezko arreta eman behar zaie.

2) Sektore batzuen parte-hartze eskasa ikastetxeetako bizikidetzaz erregulatzen duten arauak egin, berrikusi eta aplikatzen.

Eginiko azterlanaren emaitzek agertzen dute bizikidetzaz arauak egin, berriz aztertu eta ezartzean oso gutxi parte hartzen dela, bai behinik behin familia eta ikasleentzat aldetik. Sektore horien poztasun eza galdera-sorten erantzunean nahiz eztabaida-taldeetan agertzen da.

Badirudi ikastetxe batzuetan ohikoa izaten dela aurreko urteetan ezarritako arauak egokitzat jotzea, ikastetxeko komunitateko kide guztien arteko eztabaida sustatu gabe. Horietako asko kide berriak izan daitezke ikastetxean eta, beraz, gerta daitezke horiek eratzean inoiz parte hartu ez izana.

Modu berean, ez dirudi parte hartzeko egitura formalizatuenek (adibidez, bizikidetzaz batzordeak edo eskola Kontseiluak) kontua behar bezala konpontzen dutenik. Ikasle eta familien balorazioaren arabera (organo horietan parte-hartze zuzena dutenak barne), oso aukera mugatuak dituzte arauak edo aplikatu beharreko irizpideak berriz aztertzean esku hartzeko, irakasleek erabakitzeke duten ahalmenaren ondoan.

3) Zenbait jokabide “normaltzat” hartzea; horrek zalantzan jartzen ditu errespetuzko bizikidetzarako ezinbestekoak diren hainbat balio.

Azterlanean ikusitako beste elementu kezkarrietako bat da ikasleen talde handi batek “normaltzat” jotzea zenbait jokabide, horiek ikastetxeko giro ona suntsi badezakete ere. Jokabide horiek sufrimendu handia eragin diezaiekete zenbait ikasle eta irakasleri, edota arazoei erantzun egokia emateko aukera zaildu.

Nagusiki, hiru jokabide motaz ari gara. Horiek, aztertutakoaren arabera, nahiko ohikoak dira eta ikasleen talde esanguratsuak justifikatzen ditu –arrazoi harrigarriak eman ez batzuetan–:

- Gelako martxa etetea edo diziiplina eza, txostenean antzeman daitekeen moduan, irakaslearen egonezinerako arrazoi nagusienetako bat da eta, modu berean, ikasleen frustrazioa eta poztasun eza dakartza.
- Gelakideei eginiko erasoak, haiengan izan ditzaketen ondorio txarrak baloratu gabe.
- Ezer egiten ez duen lekukoaren paperaren onarpena. Normalean, ondorio kaltegarriak etorriko zaizkienaren beldur, beste alde batera begiratzen dute, sufritzen ari denari babesik eman gabe edota heldu arduradunekin elkarlanean aritu gabe.

Txostenak dioen moduan, oso zabaldurik dauden jokabide horien konbinazioak kostu pertsonal handia izaten ari dira, ikasleengan nahiz irakasleengan, eta horrek kalte egiten diote ikastetxeetako eta geletako bizikidetzaz-geroari.

4) Ikastetxeetatik kanpoko agente batzuen jarduera jakin batzuk izaten duten eragina, ez beti ona.

Txostenean islatzen den moduan, eskolako komunitateak eta, bereziki, irakasleen taldeak kezka handiz ikusten dute nola, beren ustez, beste gizarte-eragile batzuek beren esparruan eskua sartzen duten. Adibide gisa, ikastetxeko jazarpen kasuen judizializazioaren inguruan adierazitako iritziak aipa daitezke, edo zenbait kasuri hedabideek ematen dioten tratamenduari buruz adierazitakoak.

Litekeena da ikastetxetik “kanpoko” agente batzuen esku-hartzearen aurkako iritzi batzuk jarrera defentsiboaren ondorioz etortzea, baina aldi berean arazoizko kezka antzematen da zenbait esku-hartzek egoera ez hobetzeaz gain, ondorio txar gehiago sor ditzakeelako, ondorio onen aldean.

Gauzak horrela, badirudi kasuen, hartutako neurrien eta ondorioen bilakaera aztertu behar dela.

5) Irakasle askorengan ezinegon handia antzeman daiteke, gainezka egiten dutela sentitzen dutelako.

Galdera-sortei emaniko zenbait erantzunek nahiz elkarrizketa eta eztabaida-talde jakin batzuen edukiak pentsarazten dute irakasle askok gainezka egiten duela sentitzen duela, alde batera utzita daudela, lubakian sartuta bezala, lan itzelaren aurrean beharrezkoak dituen baliabideak izan gabe: onarturiko agintea, prestakuntza egokia, tutore lanak behar bezala gauzatzeko denbora eta esparruak, administrazioaren babesa, esparru legal argiak, baliabideak, eskolari gerora egingo duenaren aurkakoa izango dena exijitzen ez dion gizartea...

Bildutako erantzunen arabera, badirudi oraindik badirela funtzio “hezitzailea” onartu nahi ez duten irakasleak, nahiz eta oso gutxi diren. Gehienek lan hezitzailean sinesten dute, baina behar bezala gauzatzeko baliabideak falta zaizkiela diote.

Irakasleen etsipenak ikastetxeetako bizikidetzeta-giroan hobekuntza esanguratsuak sumatzea galaraziko luke; beraz, horregatik da garrantzitsua haien parte-hartzea zaindu eta babestea.

Egia da ikastetxeek, haiek bakarrik, ezin dutela gizarteko indarkeria deuseztatu, baina aurrea har diezaioke, indarkeriaren presentzia edo ondorioak gutxitu eta harremanetarako eredu alternatiboak eskaini.

6) Zenbait jokabideren aurrean agerturiko erreakzioa ez da nahikoa, edo motelegia da, eta horrek zigorgabetasun sentazioa sortzen laguntzen du.

Zalantza barik, ikastetxeen oinarrizko lanak prebentziozkoa izan behar du, baina zenbait egoeraren aurrean, prebentzioa ez da nahikoa izaten.

Zenbait gertakariren aurrean, jazarpen egoerak kasu, ezinbestekoa da esku hartzea eta, gainera, azkar eta eraginkortasunez esku hartzea.

Mantsotasunak edo eraginkortasun ezak ondorio kaltegarriak bakarrik dakartzate: jakina, jazarpena pairatzen duen pertsonarentzat, babesik gabe jarraitzen duelako, baina baita jazarpena eragiten duen pertsona edo taldearentzat, zigorrik gabe ikusten dutelako beren burua, eta lekukoentzat ere bai, gelakide bat –irakasle bat– lotsarazten jarraitzen dutela ikusten dutelako, ezer apartekorik gertatu gabe.

Ararteko erakundean jasotako kontsulta eta kexa gehienak ikastetxeek urtetan pairatutako desgastearen eta frustrazioaren ondotik etorritakoak izan dira. Oro har, familiek adierazitakoak izan dira, ikastetxearen esku-hartzea moteltzat edo eskastzat jotzen dutelako.

7) Tratu txarren biktimen bakardadea eta mina.

Badirudi ezagutzen edo salatzen diren tratu txar edo jazarpen kasuak errealitatearen zati txiki bat besterik ez direla.

Baina, hezkuntza-sisteman edo eskolako aro jakin batean agertzen diren jazarpen kasuen proportzio fidagarrienaren datua zein den alde batera utzita, kontua da jazarpena pairatzen duen ikasle asko dagoela. Horietatik asko isiltasunean bizi dira, edo lagunen baten babesarekin bakarrik. Izan ere, ez dute biderik beraiek defendatu beharko lituzketen helduei gertatzen dena azaltzeko, edo beldur dira beren salaketak babesgabetasun handiagoa eta ondorio kaltegarriagoak ekarriko dizkien.

Egoera hori erabat onartezina da zuzenbidezko estatu batean, eta are gehiago, heztea helburutzat duen erakunde batean. Haien erantzukizun nagusia ikasleak babestea da, kasu gehienetan adin txikikoak baitira.

Horregatik, txosten honetan zenbait gomendio zehatz egitea erabaki dugu, tratu txarren biktima direnei beharrezkoa duten laguntza bermatzeko asmoz.

- Hel diezaiegun, beraz, bukaerako **gomendioei**:

Txostenean **28 gomendio** egin ditugu ikastetxeetako eta geletako bizikidetzak hobetzeko. Ikusiko duzuen bezala, gomendio horiek hezkuntza-sistema osoari zuzendurikoak dira, arduradun gorenei edota, ikastetxeko komunitatearen parte izan ez arren, garatzen dituzten jarduerak direla-eta, hartan eragina duten agente sozialei, besteak beste, sistema judiziala edo hedabideak.

- Horietako batzuek egungo **esparru arautzailea** aldaraztea edo osatzea proposatzen dute (adibidez, Ikasleen eskubideen eta betebeharren Dekretua), edo jardueraprotokoloak berrikustea (1.etik 5.era arteko gomendioak).
- Beste batzuek **ikastetxeen antolakuntzari**, beren lehentasunein, parte-hartzeko sistemei, jardunbideei, eskolako denboraren eta espazioen antolakuntzari eta abarri eragiten diete (6.etik 16.era arteko gomendioak). Gomendioen bloke hau da zabalena eta, beharbada, baita oro har aplikatu ahal izateko zailena ere.
- **Jazarpen** edo indarkeriazko **egoeratan esku hartzeko** moduaren inguruko sei gomendio zehatz ere egin genituen, detekzioa hobetzera eta tratu txarren biktima direnei babesa eta beharrezko laguntza bermatzera bideratuak (17.etik 22.era arteko gomendioak). Azken urteotako esperientziak erakutsi digu prebentzio lana (zalantzarik gabe, alderdirik garrantzitsuena izaten jarraitu behar duena ikastetxeetan) beti ez dela nahikoa izaten. Horregatik egin behar izan ditugu gomendioak.

- Hiru gomendio **beste agente sozial batzuen esku-hartzeari** buruzkoak dira: sistema judiziala; hedabideak; bestelako agenteak, adibidez, gizarte zerbitzuak edo polizia (23.etik 25.era arteko gomendioak)
- Eta azken hirurak jarraipen eta ikerketa egiteko beharrari buruzkoak dira (26.etik 28.era arteko gomendioak). Ziur aski, egun daudenak baino ikerketa gutxiago edo, hala badagokio, hobeak egin behar dira jazarpen indizeari edo bestelako gatazken indizeari buruz, eta gehiago esku-hartze programen eraginkortasunari buruz. Bada beste gomendio bat ere –azkenekoa– oraingo protokoloa edo Hezkuntza Sailak bere garaian egindako jarduera-gida nola aplikatzen den aztertu beharraz eta, hala badagokio, gida hori berriz aztertzeaz.

Hortaz, jardun-eremu ugari hartzen dituzte. Jakina, bizikidetasuna hobetuko bada, anitz neurri hartu behar dira, ezin da neurri bakar baten fruitu izan.

Litekeena da 28 gomendioetakoren bat berriagoa izatea, baina gehienek jada aplikatzen ari diren jardunbideak, programak edo ekimenak indartzen dituzte. Hala ere, hezkuntza-sistema oso zabala eta konplexua da. Eta ikastetxe guztietako bizikidetzaren modu esanguratsuan hobetzea lortzeko zailtasun nagusietako bat sistemaren beraren konplexutasuna da, hamaika gela, hamaika irakasle... Gomendio horietako asko aplikatzeak esku hartzea eta arduratsu ibiltzea eskatzen die, neurri handiago ala txikiagoan, hainbat instantziari: Hezkuntza Sailari eta haren zerbitzuei dudarik gabe, baina baita ikastetxeko organoei (Eskola Kontseiluak, bizikidetzaren batzordeak, zuzendaritza-taldeak, mintegiak, zikloko taldeak...) eta beste agente sozial batzuei ere.

Adibide bat ematearren, zenbait ikastetxetan banakako tutoretzak egiten dira –hori da guk egindako gomendioetako bat–, baina jardunbide hori ikastetxe guztietara zabaltzea ezin da dauden baliabideen arabera izan, edo ikastetxe bakoitzak hartzen duen konpromiso handiago edo txikiagoaren arabera.

Ildo horretan, Ararteko erakundeak, ahal duen heinean, gaiaren bilakaera aztertuko du, datozen ikasturteetan antzematen diren lorpenak, aurrerapausoak edo atzerapenak ezagutzeko.

Bestalde, foro honetaz baliatuz, iragarri nahi dizuet erakunde honek, bizikidetasunaren oinarrian dagoen beste gai garrantzitsu bat landuko duela hurrengo txosten batean, hain justu, adingabeei balioak helaraztearen gaia.

Bizikidetzari buruzko txostenak jada erakusten du, azaletik bada ere, zeintzuk diren nerabeen, beren familien eta irakasleen balioak. Balioen transmisioari buruz prestatzen ari garen txosten monografikoaren helburua informazio hori osatzea eta beste sektore batzuetara helaraztea da eta, horrela, gomendio zehatzagoak eta zabalagoak (ez bakarrik eskola-sistematik direnak) egin ahal izango ditugu.

Hitzaldi honen hasieran gaietara adierazi dudanez, goiz osoan, hemen bertan, Euskaldunan, lan-mintegia egin dugu, horretarako berariaz gonbidatu ditugun 40 pertsonekin.

Landutako gaiak txostenean aztertutakoak berak edo haien oso antzekoak izan dira:

- Zeintzuk diren eskola-giroan eragin onuragarria edo kaltegarria izaten ari diren faktore nagusiak.
- Zer erakusten diguten jardura egokiek.
- Zer egin dezakeen edo egin behar duen hezkuntza-administrazioak.
- Zer hobetu edo aldatu ikastetxeen antolaketan.
- Nola jardun jazarpena edo tratu txarrak gertatzean.
- Beste gizarte-eragile batzuen esku-hartzea.
- Zer ebaluatu, ikertu, zabaldu... beharko litzatekeen.
- Zer egin lezakeen Arartekoak...

Lan horren bidez, oso ikuspuntu desberdinetatik egindako ekarpenak aditzen eta biltzen ahalegindu gara. Egiaz, parte-hartzaileei deitzeko orduan –horietako asko areto honetan daude–, elkarren osagarri izango ziren esperientzia eta ikuspegiak izan zitzaten nahi genuen: ikasgelan lan egiten duenaren edo ikastetxe zuzendariaren ikuspegia, laguntza-zerbitzuetan aholkua ematen duenarena, ikuskaritzatik esku hartzen duenarena, unibertsitatean edo beste erakunde batzuetan hezkuntzari edo bizikidetasunari buruz ikertzen dabilenarena...

Alabaina, irakasle, zuzendari, laguntza-zerbitzuetako langile edo hezkuntzaren ikuskaritzako langileen ahotsaz gain –hau da, zuzenean hezkuntza-sistemarekin zerikusia duten pertsona–, nolabait ikastetxeetan eragina izaten ari diren beste gizarte-eragile batzuen ahotsa ere entzun ahal izan dugu. Honako hauek dira: salaketak daudenean esku hartzen duten sistema judizialeko pertsonak, Ikasleen Gurasoen Elkartearen Federazioa edo Euskadiko Eskola Kontseilua bezalako partaidetza-organoetan ardura duten pertsonak, haurren eskubideak babesteko behatokitik edo beste erakunde batzuetan lan egiten duten pertsonak ...Gaur beraien ekarpen guztiak bildu ditugu, ahozko nahiz idatzizkoak, eta datozen hilabeteetan argitaratu eta ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzu orotara bidaliko ditugu, foro honen fruitu eta txostenaren jarraipen gisa. Denok lortu nahi dugun bizikidetasun hobea erdiesteko beste ekarpen bat izan daitekeela uste dut.

Azkenik, María José Díaz-Aguado irakaslea aurkeztu eta hari hitza eman baino lehen, **azken gogoeta** batez bukatu nahiko nuke azalpen hau, hasierako burutazioetako bati berriz helduz: bizikidetasuna eskubide kontua dela, ez dela soil-soilik heziketa on edo txarrarekin lotutako kontua.

Mutil, neska edo nerabe guztiek segurtasuna eskainiko dien eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzea ahalbidetuko dien giroan heziak izateko eskubidea dute, adina, maila, jatorria, itxura, ahalmena, sexua, sexu-joera edo beste edozein ezaugarri pertsonal alde batera utzita. Familia guztiek dute beren haurrak ikastetxe batera bidaltzeko eskubidea, behar bezala babestu eta heziko dituzten bermearekin. Irakasle orok du bere lanean laguntza eta begirunea jasotzeko eskubidea, bere zereginak eskatzen duen agintea izanez... Horregatik, ikastetxeak –ikastetxe orok– ezberdinen arteko bizikidetza gauzatu eta ikasi ahal izateko tokia behar du izan, edozein indarkeria-mota, bereizkeria edo irain baztertuz. Horri dagokionez, gizarteak asko du jokoan.

Hortaz, mezu argi hau egia bihurtu behar dugu gure gizartean eta eskolan: **tolerantzia izpirik ez harremanetan indarkeria erabiltzen denean**. Gure txostenak eta foro honek horretan lagundu nahi dute.

Eskerrik asko.